

MERKATUAREN

SEGMENTAZIOA

Aurreko dokumentuan ondo azaldu denez, gure produktu-sorta laguntza profesional espezifikoa behar duten pertsonen sektorerako diseinatuta dago. Laguntza espezifikoa bidaltzeko, gure bezeroak bereizi ditugu haien beharretatik abiatuta, honela:

- **Hirugarren adinekoak:** zenbait urte betetzerakoan, adinekoek zailtasun fisiko eta psikologiko gehiago izaten dituzte. Horietako batzuk laguntza eskatzeko beldur dira, beren burua zama gisa ikus baitezakete, edo beren adinaren ondorioz dituzten mugak onartu nahi ez dituztelako, besteak beste.
- **Genero-indarkeriaren biktimak:** datu ofizialek ziurtatzen duten bezala, azken hamarkadan genero-indarkeriaren kasuak handitzen ari dira. Adituek diotenez, gero eta salaketa gehiago daude, baina hala ere, emakume gehienak antzeko egoeratan aurkitu dira, eta ez diete segurtasun-egoitza ofizialei laguntza eskatu nahi izan. Horregatik, botoiak 016 telefono-zenbakira deitzea eskaintzen du, arrisku fisiko zen psikologiko batean sentitzen direnean.
- **Bullying-aren biktimak:** gaur egun, bullying edota ziberbullying kasuek ez dute behera egin, eta kasu jakin batzuetan, beldur edota nagusiek laguntza-deiari uko egitearen ondorioz, gazteek eta ez hain gazteek beren buruaz beste egiten dute. Muturreko egoeretara ez iristeko, botoi honek indarkeroarekin amaitzeko aukera ematen du, batez ere ikastetxeetan.
- **Dibertsitate funtzionala duten pertsonak:** dibertsitate funtzionala duten pertsona asko nagusi egiten direnez, independizatu egin nahi izaten dute, baina dibertsitate funtzionalaren graduaren arabera familia asko ez dira lasai sentitzen, botoiak behar duten segurtasuna eskaintzen die.
- **Gaixotasun mentalak duten pertsonak:** dibertsitate funtzionala duten pertsonak bezala, gaixotasun mentalak dituzten pertsonak ere seguru ez senti daitezke bizitza-eraketan, bidaiatzerakoan edo bakarrik egotean. Horretarako, segurtasun-botoiak lasaitasun hori eman diezaieke, hau da, zerbait gertatzen bazaie, klik bat eginda bakarrik izango dute laguntza lehenbailehen.

Hasiera batean, gizarte talde hauentzat disenaitu dugu gure produktu-sorta. Era berean, web orrian, bezeroek gure produktuan interesa baldin badute aukera izango dute azaltzeko zer laguntza-mota sartu nahiko genukeen, haien beharrak asetzeaz gain, guk, enpresa gisa, gure produktua hobetu eta gure salmenta-merkatua zabaltzeko ahal izateko.